SARA

# ikusiMikusi

HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA



## BIZIKI GOXATU, OSOKI MAITATU

URRIAK
11 ETA 12

10:00
19:00

2024

www.ikusimikusi.eus

# ZER DA IKUSI MIKUSI?

IKUSI MIKUSI proiektua euskara hutsean den HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA da. 2021-ean izan zen lehen edizioa. Aurten, laugarren edizioa ospatuko dugu, SARA herrian, urriaren 11a eta 12-an.

Azkenean IKUSI MIKUSIk euskarari, haur eta gazte literaturari premiazko tokia eskaintzen dio, Sara herrian, bi egunez : eskolen eta profesionalen eguna urriaren 11-ean, eta familien eguna urriaren 12-ean.

# ZENDAKO IKUSI MIKUSI?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaldu nahi dio IKUSI MIKUSIk. Ekitaldi hunek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal herri osoko ikasleak eta profesionalak (eskolen eta profesionalen egunean), eta jendartea (familien egunean), elkartu nahi ditu, euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioaren antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik, adinen arabera.

# IKUSI MIKUSIREN HELBURUAK

- Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietako bat plazara jalgitzea eta sustatzea, eskolako gazteei, profesionalei eta publiko orokorrari hobeto ezagutzera emateko.

- Euskal herri osoko ikasleak eta profesionalak (eskolen eta profesionalen egunean) eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, literaturaren inguruan.

- Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.

- Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi ditzaten, albumek eskaintzen dituzten irakurketa eta idazketa jolasei esker.

- Euskal herri lurralde osotik, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak elgar ezagutzea eta inplikatzea.

# URRIAK 11A, OSTIRALA
## ESKOLEN ETA PROFESIONALEN EGUNA

### ESKOLEN EGUNA:

- 1 100 ikasle euskal herri osotik etortzen dira (Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Xiberua, Gipuzkoa eta Nafarroa).

- Ikasle bakoitzari 15€-ko bono bat eskaintzen zaio, gustukoa duen liburua eros dezan. Haur bakoitza etxera sartzen da EUSKAL LIBURU BATEKIN!

- Eskola guziek aurretik idatz edota lan grafiko bat sortzen dute.

- Obra guztien erakusketa antolatua da bi egunez Sarako mediatekan.

- Idazle eta ilustratzaileekin topaketak eta galdezketak (aurretik landuak ikasgelan) antolatuak dira, Kanaldude telebista aurrean grabatuak.

- Ikuskizunak, tailerrak eta animazioak egun osoan, ikasleen adinari egokituak eskainiak dira.

### PROFESIONALEN EGUNA:

IKUSI MIKUSI ekitaldiak EKE, BILKETArekin elkarlanean haur eta gazte literaturaren berezitasunak eta erronkak ulertzeko egun profesionala eskaintzen du.

- Haur eta gazte literaturaren berritasunen aurkezpenak eta profesionalen arteko trukaketa, IKAS eta LIBREPLUMEn eskutik.

- Sortzaile eta mediaketen arteko topaketak.

- Mahain ingurua, «HAUR LITERATURAK ZABALTZEN DITUEN MEZU IMPLIZITOAK»

- Sortzaile eta argitaletxeen arteko buruz buruko topaketak.



# URRIAK 12, LARUNBATA: FAMILIAREN EGUNA

## 11:00

### MOKOFINA
LagunArte Konpainia

IKUSKIZUNA
'30 min
7 | Suharriaga
6. orrialdea

### LIBURU KONDAKETAK
Iñaki Carretero

TAILERRA
'45 min
5 | Keinu Gela
10. orrialdea

### ZURE SAKELEKO LIBURUA
Daniela Maitia

TAILERRA
'45 min
9 | Larrun Gela
10. orrialdea

## 12:00

### BRANCA
Branca Konpainia

IKUSKIZUNA
'45 min
6 | Sarako Plaza
8. orrialdea

## 13:30

### LOALDI MUSIKALA
Kiribil Konpainia

MUSIKA
'30 min
7 | Suharriaga
9. orrialdea

### FLIPLUF
Alabena konpainia

IKUSKIZUNA
'45 min
1 | Lurberri
7. orrialdea

## 14:00

### ZURE SAKELEKO LIBURUA
Daniela Maitia

TAILERRA
'45 min
9 | Larrun Gela
10. orrialdea

## 15:00

### DANTZAN SARTU
Dantzalai konpainia

TAILERRA
'45 min
10 | Olhain gela
11. orrialdea

## Egun osoan zehar



### TXONTXONGILO ERRALDOIA
Kilika konpainia

Herri osoan
11:00 - 18:00



### TTIPITTOEN XOKOA
Sarako haurzainen esku

7 | Suharriaga
10:00 - 17:00



### LIBURU AURKEZPENAK
Kanaldudek filmatua & Maia Muruagak animatua

2 | Telebista gunea
10:00 - 17:00

| 16:00 | 17:00 | 18:00 |
|---|---|---|
| **MOKOFINA**<br>LagunArte Konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'30 min<br>7 \| Suharriaga<br>6. orrialdea | **FLIPLUF**<br>Alabena konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'45 min<br>1 \| Lurberri<br>7. orrialdea | **BRANCA**<br>Branca Konpainia<br>IKUSKIZUNA<br>'45 min<br>6 \| Sarako Plaza<br>8. orrialdea |
| **MIKEL LABOA KANTUZ**<br>Maialen Alfaro<br>TAILERRA<br>'45 min<br>7 \| Suharriaga<br>11.orrialdea | **ZURE SAKELEKO LIBURUA**<br>Daniela Maitia<br>TAILERRA<br>'45 min<br>9 \| Larrun Gela<br>10. orrialdea | |

+ 0 urte

+ 3 urte

+ 6 urte

+ 11 urte



## ESKOLEN ERAKUSKETA

Euskal herriko ikasleen esku

8 | Sarako liburutegia
10:00 - 12:00

Ikuskizuna

# MOKOFINA

LAGUN ARTE KONPAINIA

Mokofinak gizateriaren tresnarik zaharrenari balioa ematen dio: ahoa. Jan, edan, arnasa hartu, ufatu, mintzatu, kantatu, txistu, musu, irri egin... Liluragarriaz da ahoarekin egin dezakezuna!

## 11:00 & 16:00

+ 0 urte

7 | Suharriaga

5€

30 min

lagunarte.org



Ikuskizuna

# FLIPLUF

ALABENA KONPAINIA

Flipluf ikuskizunak norbera ustekabean harritzera gonbidatzen du, bere kuriositateari irekiz, beldurrak gainditzera eta arriskua dastatzera. Metamorfosia baten istorioa da, beldarra pinpirin bilakatzen delarik bezala, zorabiorik gabe hegaldatzen ikasten diguna.

## 13:30 & 17:00

+ 3 urte

1 | Lurberri

5€

45 min

alabena.eus



Ikuskizuna

# BRANCA

## BRANCA KONPAINIA

Berriro harremanak sortu !
Biziak bultzaturik, publikoaren begipean, gizon galdu batek bere bidea berriro aurkituko du, «Branca», adarra, Naturak lagundurik. Hitzik gabeko ikuskizun honek poesiaz eta umorez elgar berriro konektatzera gonbidatzen gaitu, maitatzeko, haunditzeko.

## 12:00 & 18:00

+ 6 urte

6 | Herriko Plaza

5€

45 min

compagniebranca.com



Kontzertua

# LOALDI MUSIKALA

## KIRIBIL KONPAINIA

Haundi ala ttiki, goxoki etzanda edo eserita, entzun eta gozatu : zuzenean musikaren bidez bidaia eder eta goxo bat biziko duzue.

13:30

- + 0 urte
- 7 | Suharriaga
- Dohainik
- 30 min

kiribil.eus



Tailerra

# LIBURU KONDAKETA

## INAKI CARRETERO

«Gero eta guttiago kantatu eta kondatzen zaie gure txikitxoei. Zu heldu, aita edo ama, txikia zinenean gogoratzen al duzu kantatzen edo kondatzen zizutena ? Gu gogoratu gira eta zuekin eta zuen ikasle eta seme-alabekin partekatu nahi dugu»

### 11:00

- + 3 urte
- 5 | Keinu gela
- Dohainik
- 45 min



Tailerra

# ZURE SAKELEKO LIBURUA

## DANIELA MAITIA

«Sakelan edo poltsikoan ukaiteko liburu ttipi bat, sorkuntza polita haurrendako, materiala guttirekin. Eguneroko liburu ttipia sakelan, ikasten ditugun hitzak edo olerkiak idazteko.»

### 11:00, 14:00 & 17:00

- + 6 urte
- 9 | Larrun gela
- Dohainik
- 45 min





Tailerra

# DANTZAN SARTU

## DANTZALAI KONPAINIA

«Tailer honetan, dantzaren munduan murgilduko gira. Liburu batek sortzen duen irudimenari esker, lekuz aldatu, lerratu, jautzi egin, luzatu, pausatu.... dantzan sartzeko parada bilakatuko dira ekintza guztiak.»

15:00

+ 3 urte

10 | Olhain gela

Dohainik

45 min



Tailerra

# MIKEL LABOA KANTUZ

## MAIALEN ALFARO

«Memento bat partekatuko dugu elgarrekin Mikel Laboa eta bere obra ezagutzeko. Bere kantuen uniberbertsoan murgilduko gira bere 3 arloetako kantuak jastatuz (herri kantak, bere sorkuntzak eta bere unibertso berezia ezagutuz).

16:00

+ 10 urte

7 | Suharriaga

Dohainik

45 min

lasaitasunezloratuz.eus






HEMEN IKUSKIZUNENTZAT
TXARTELAK
ATZEMANEN DITUZUE !

TAILER
ETA
IKUSKI




RAK

ZUNAK

SARA HERRI GUZIAN IRAGARKI TAULA ETA GEZIAK ATZEMANEN DITUZUE.

SARA

# INFORMAZIO OROKORRA

**IKUSI MIKUSI, euskal haur eta gazte literatura ekitaldia, laugarren aldikotz SARA herrian ospatuko da. Urriaren 11a, ostirala, eskola eta profesionalen eguna izango da, eta urriaren 12a familien eguna.**

**Azokaren sarrera, tailerrak, mintzaldiak eta liburu aurkezpenak DOHAINIK edo URRIRIK dira.**

**IKUSKIZUN bakoitzak 5euro balio du.**

**Txarteltegia infogunean, baita ere bertan ikuskizun guneetan atzemanen duzue.**

**Ttipittoen xokoa +0 urte Suharriagan etxe beherean atzemanen duzue. Gune hori ñiñientzat egokitua da.**



# FRANCAIS - CASTELLANO

## Français

**IKUSI MIKUSI** est le premier et l'unique **SALON LITTÉRATURE JEUNESSE** intégralement en langue basque, regroupant l'ensemble de la société basque de part et d'autre de la frontière. La première édition a eu lieu en 2021 et la quatrième édition se tiendra les 11 et 12 octobre prochains.

Pendant deux jours, la littérature jeunesse basque est mise en lumière dans l'ensemble du village de SARE, avec toutes les déclinaisons possibles : ventes d'albums et d'ouvrages littéraires, rencontres avec les auteurs-illustrateurs, spectacles vivants, ateliers, tables rondes, débats, etc...

La journée du vendredi est dédiée aux scolaires (plus de 1100 élèves de toutes les écoles primaires et collèges de l'ensemble du pays basque) et aux professionnels.
La journée du samedi est dédiée aux familles.

L'entrée au Salon est gratuite, ainsi que tous les ateliers, les présentations d'ouvrages, les tables rondes. Seule l'entrée aux spectacles est payante, au prix de 5€.

## Castellano

**IKUSI MIKUSI** es la primera y única **FERIA DE LITERATURA INFANTIL y JUVENIL** totalmente en euskera que reúne a toda la sociedad vasca de ambos lados de la frontera.
La primera edición tuvo lugar en 2021 y la cuarta edición se realizará los días 11 y 12 de octubre 2024.

Durante dos días, la literatura infantil y juvenil vasca se pone de relieve en todo el pueblo de SARA, con todas sus variantes posibles: venta de libros y obras literarias, encuentro con autores-ilustradores, espectáculos, talleres, mesas redondas y debates, etc...

El viernes está dedicado a los colegios (más de 1.100 alumnos de todas las escuelas primarias y secundarias del Pais Vasco) y  a los profesionales.
El sábado está dedicado a las familias.

La entrada al Salón, así como a todos los talleres, presentaciones, mesas redondas, etc... es gratuita. Sólo se pagan las entradas a los espectáculos, al precio de 5€.

# MILESKER GURE PARTAIDEEI

lafitte.
jardinerie

ORONOZ
PINTURA
06 13 80 20 06 | oronoz.jeanlouis@9business.fr | SARA

Agour
IZAN DIRELAKO GARA

BRICOMARCHÉ
MAISON - JARDIN

Ithurbide
ITURGINTZA – BEROGINTZA – ENERGI BERRIZTAGARRIAK

ELIZALDIA
ETXALDEA
Loyatho

Sokoa

URTXOLA
jatetxea
asteazkenean hetsia
fermé le mercredi
cerrado el miércoles
Zugarramurdi - Sara
05 59 54 21 31

IXO
GARAGARDOA

Collectivité
service
SOLUTIONS POUR LE BUREAU

PIXTA
BOISSONS
C10
64 780 St-Martin-d'Arrossa
Tél. : 05.59.37.74.90 Fax : 05.59.37.76.65 Email : pixta64@orange.fr

E.Leclerc
URRUGNE • ST-JEAN-DE-LUZ

MAISON GARAT

*La signature basque des volailles gourmandes*

1 route de St Pée sur Nivelle - 64250 Souraide - France
05 59 93 83 20    05 59 93 81 76

FR 64 527 003 CE

# Goicoechea

POTIER - CÉRAMISTE

LURREZ • ESKUZ • MAITEZ • LANDUZ

Village d'artisans - Rd 918 - 64780 Ossès - Ortzaize

**www.poterie-goicoechea.com**




Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 6 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com
www.ikusimikusi.eus

SARA

## AZOKAKO 4.EDIZIOAREN ANTOLAKETA

MARI GORRI

Herriko Etxea
64 310 SARA

+(33) 06 98 12 36 50
ikusimikusi@gmail.com

Herriko Etxea
64 310 SARA

+(34) 05 59 54 20 28
kultura@sare.fr

IBbY Galtzagorri elkartea

Zemoria, 25-behea
20013 Donostia

+(34) 943 471 487
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus

PAMIELA argitaletxea

Polígono Ezkabarte, calle K, 31
31194 Arre (Navarra)

+(34) 948 326 535
web@pamiela.com

## PARTAIDEAK

Communauté D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE / EUSKAL HIRIGUNE Elkargoa

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA — INSTITUT CULTUREL BASQUE

Bayonne BAIONA PAYS BASQUE / BILKETA

MINISTÈRE DE LA CULTURE — Liberté Égalité Fraternité

Etxepare Zerrat LIZEOA

SARAKO

GIPUZKOA Ekin. Zaindu. Bizi.

burutü

[K] KANALDUDE

EUSKAL IRRATIAK

## ESKERRAK

Aurten ere, Euskal Haur eta Gazte Literatura IKUSI MIKUSI plazara jalgiarazten duten guziak BIHOTZETIK ESKERTZEN DITUGU !
Hala nola Sarako herria eta bere langile tekniko guziak, herriko elkarteen bolondresak, eta gaineratiko laguntzaile guziak !